



labore- elkarketak

Zer da labore-elkarketa?

Labore-elkarketa landare-espezie bi edo gehiago **aldi berean** landatzea da, toki eta denbora-tarte berean, elkarrengandik behar bezain hurbil haien arteko **osaketa** edo harreman onuragarria gertatzeko.

Baratze ekologikoan biodibertsitatea handitzeko erabiltzen den laborantza-teknika da.

Oinarri du, batetik, landare batek beste baten garapenean edo ingurunean duen eragina, konposatu kimiko lurrunkorrak atmosferara edo lurrrera askatuz. Bestetik, laboreen garapen-ezaugarri eta errekerimendu ezberdinak ditu oinarri. Badira elkarketa onuragarriak eta kaltegarriak.



Onurak

- Espazioa eta baliabideak hobeki aprobetxatzen dira: argia, ura eta lurzoruko mantenu-gaiak.
- Landare adbertizioen kopurua murrizten da, itzala egitearen ondorioz edo landaketa-dentsitate handiagoaren ondorioz.
- Guztizko errendimenduak handiagoak dira.
- Izurrien edo gaitzen aurkako babesa ematen dute, hainbat efekturi esker:
 - Laboreak moztortuz; horrela, izurriteek nekezago aurkituko dituzte.
 - Ekintza arbuiagarria. Biozida (intsektizida, nematizida...), arazoak sortzen dituzten espezieen aurka
 - Harrapakari naturalak ugaritzen dira,...

Zailtasunak

- Azalera zabalagoetan zailagoa da aplikatzea:
- Zenbait laboretan, lan batzuen mekanizazioa mugatzen du.
- Beti ez dator bat elkarrekin joan behar duten bi laborek hartu beharreko azalera.
- Plangintza egokia behar du.
- Txandakatzearen diseinuan txertatu beharra dago.

Kontuan hartu beharreko gomendioak

- Nola edo hala elkarri onura ematen dioten edo elkar osatzen diren espezieak aukeratzea, esperientzian oinarrituta.
- Hainbat familiatako espezieak elkartzea, sustrai-sakonera, tamaina eta nutrizio-premia ezberdinekoak edo zati jangarri ezberdinekoak...
- Ziklo labur, ertain eta luzeko laboreak txandakatzeak aukera ematen digu laboreak segidan landatzeko, espazioa hobeki aprobetxatuta.
- Landareen garapenez gain, belar adbertizioekiko lehia hartu behar da kontuan, bai eta haien arteko lehia ere.

Elkarketa onuragarrien adibideak

Izurriak kontrolatzeko

Laboreak

Azenarioa eta tipula edo porrua

Laborea eta landare laguntzailea

Piperra eta albahaka

Izurri kontrolatua

Bi laboreetako euliak.
(*Psylla rosae*) (*Delia antiqua*)

Landare-zorriak (hainbat espezie)

Efektua

Mozorrotzearen ondorioz, nekezago egiten zaie euliei laborea aurkitzea eta errunaldia egitea,

Albahaka tartekatua lantzen badugu, aurea hartzen dio zorriak piperrari egiten dion erasoari, piperra mozzorrotzen baitu.

Osagarriak direlako eta lurraren emankortasuna hobeki aprobetxatzen delako

Artoa eta babarruna

Babarrunak N ematen dio artoari, eta artoak mantengai asko behar ditu. Artoa, berriz, zurkaitza da babarrunarentzat.

Espazioa eta lurraren emankortasuna hobeki aprobetxatzeko

Letxuga, errefautxoia eta tipula
Aza eta letxuga

Eite, sustrai-sistema eta hazkuntza-abiadura ezberdineko landareak lantzen dira elkarren ondoan.

Ferrnán López-Escayza/Quetta

labore-
elkarketak

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIKOAK

